

Sara

Aurkibidea

Udalerria: Sara

Sarrera



Ezpeletako kantonamenduan kokatutako herri lapurtarra. Hego Euskal Herriarekin duen kilometro askotako luzerak (Nafarroako Zugarramurdi, Etxalar eta Bera baititu mugakide) bere historian eragin handia izan du; izan ere, mugak ongi ezarri edo zehaztu ziren unetik aurrera kontrabandoaren jarduera oso ezaguna izan zen herrian eta inguru etan. Nafarroaz gain, Senpere, Urruña eta Azkaine herrieekin egiten du muga.

- **Biztanleak:** 2.517
- **Euskaldunak:** %58,8

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **12**
- Zintak: **13**
- Pasarteak: **36**
- Transkribatutakoak: **3**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **33**

Proiektuak

- Dialektologia-EHU
- Euskal Herriko Ahotsak
- Euskalkiak.eus
- IKER taldea
- Lierni Elortzaren fondoa
- Rudolf Trebitsch-en euskal grabazioak (1913)

Hizlariak

Paulo - (1920)



Mirentxu Azkarraga

Miren Azkarraga, saratar laboraria eta baratzazaina da. Azkainen bulego batean 7-8 urtez lan egin ondoren, berea zen proiektu bat sortu nahi zuen eta 2012az geroztik baratzaina da. Zuzenean saltzen ditu bere produktuak.

Joanes Etxeveste *Pontx pailazoa* (2005)



Joanes Echeveste, Sarako pailazoa eta aktorea da. Txikitatik pailazoa izan nahi zuen eta 12 urte zituela "Pontx" pailazoa sortu zuen eta emanaldiak ematen hasi zen, nahiz eta lehenago ere oholtzara igotzen zen herriko festetan edo ikastolako emanaldietan. 2021ean Go!azen 8.0 telesailean parte hartu zuen aktore bezala. 2023an "Denak plazara" izeneko azken ikuskizuna plazaratu zuen, diska batekin batera. Goazen!

Paul Martin Fagoaga (1926-2017)



1926an sortu zen Sara Plazida etxean, hiru haurrideen artean erdikoa. Bere gurasoek denda txiki bat izan zuten. Sarako historiaren lekukoa izan zen Paul. Kontrabandoa eta alemaniarren okupazioa ezagutu zituen. Eresoinka abesbatza ere ezagutu zuen, Saran egon zen denboran, eta, horrekin batera, baita askok 'gorritzat' zeuzkaten Gerra Zibileko errefuxiatuak ere, jeltzaleak gehienak. Bertzalde, Paul oso pilotari ona izan zen. Anaiarekin aritzen zen errebotean eta fama handia lortu zuten biek. Saran ospetsua den Arraya jatetxe eta hotela berak sortu eta garatu zuen. Elkarrizketa grabatu zen denboran, bere semeek zeramaten aita sortutako Arrayaren segida. Saran zendu zen Paul-Martin 91 urtetan, 2017ko maiatzaren 24an.

Janeta Hiribarren (1834)

1913. urtean Rudolf Trebitsch etnografo austriarrak jasotako grabaketa. 79 urte zituen Janetak elkarrizketatu zutenean. Emagina eta sukaldaria izandakoa, aita Etxalarkoa zuan, ama berriz Lohoussoakoa. Euskalkia: lapurtera.

- Diskoaren erreferentzia: 2.177 eta 2.178

SAR-002 Hizlari ezezaguna (1940)

SAR-003 Hizlari ezezaguna (1950)

SAR-004 Hizlari ezezaguna (1972)



Battite Laborde (1962)

Battite Laborde, Saran jaio zen 1962an. Ofizioz iturgina da baina laborantzian lan egiten du. Sarako alkatea da 2006az geroztik.

Jean Pierre Lemoine (1877)

Sara Tabernaenea etxean sortu zen Jean-Pierre LEMOINE 1877ko abenduaren 22an. Gurasoak saratarrak zituen: aita txokolate-egilea zen; ama berriz, menaiu atxikitzailea. Saran berean ezkondu zen Jeanne PEÇOINBURU anderearekin 1901eko irailaren 7an. 1913. urtean Rudolf Trebitsch etnografo austriarrak jasotako grabaketa da honakoa. 36 urte zituen Jean Pierrek grabaketa egin zitzaionean. Pilotaria zen. Euskalkia: lapurtera.

- Diskoaren erreferentzia: 2.179 eta 2.180

Mixel Urbistondo *Kaiku* (1950-2020)



Mixel Urbistondo, 1950ean Saran jaiotako harri pikatzailea da. Sarako *Kaiku* baserrira ezkondua dago eta hortik dator bere ezizena. Umetan laborantzan ibiltzen zen, baina 14 urterekin aitari lanean laguntzen hasi zen, harek Larrunen zuen harrobi batean. Harria lantzen pasa du bizitza. Sarako euskararen bilakaeraz, egoeraz, ikastolaren sorreraz... aritu da.

Joset Zunda Elissalde *Toto* (1930)



Sara Ihitia etxean sortu zen Joseph ZUNDA, 1930eko martxoaren 22an, Pierre Zunda eta Léonie Elissalde saratarren semea, bost senidetan bigarrena. Laboraria. Harrobian lan egindakoa. Ihizia, onddoketa eta baratzea ditu zaletasun.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Ohiturak eta bizimodua

1.1. "Plenitzen naiz bihotzetik" amodiozko kanta

- **Hizlaria(k):** Lemoine, Jean Pierre
- **Elkarrizketatzailea(k):** Trebitsch, Rudolf
- **Erref:** SAR-006/001
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:06
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena:** "Plenitzen naiz bihotzetik" amodiozko kanta. Gizon bat maite duen emaztearen narrazkeriaz kexa da.

Transkripzioa

Plenitzen naiz biotzetik

gaitza zer dutan ez dakit
tristezia aundi batek
nagoela arturik
ez nukeiazu penarik
ez eta ere axolik
baldin balitz erremediorik
ez da munduan barberik
neure gaitza zertarik den
ezagutzen duenik
Maitia berantetsirik
nagoela penaturik.

[Jin] bazira jin zira
ongi etorri zarela
Erraiten daitzut egia
berantetsi zinitudala
non egon zare horrela
orren bertze denbora
jin gabetanik
ene kontsolatzerat
Eman duzu aski mar[ka
ez duzula ainitz arta
Ez zirenian lehengo jin ene ikusterat
Jin zaizkit ardur ardura
penarazi gabe ni ola.]

1.2. "Baionako patroina deitzen da San Leon" abestia

- **Hizlaria(k)**: Lemoine, Jean Pierre
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Trebitsch, Rudolf
- **Erref**: SAR-006/003
- **Iraupena**: 0:01:13. **Hasi**: 00:02:15. **Bukatu**: 00:03:28
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena**: "Baionako patroina deitzen da San Leon" abestia Napoleon III.a Saran zegoela ongi etorria emateko sortutakoa da.

Transkripzioa

Baionako patroina deitzen da Saint Leon
Saindu haundiagorik ez dut senti nehon
sainduen ohoratzen behar gira egon
sainduak on dire baina
biba Napoleon!
Jaun hoikien erdian andreño bat irri
aingeru bat bezala bestitua xuriz.
Ez baitut ikusiren apurtto bat berriz
serostuna banakike saltzekoa balitz.

2. Familia eta harremanak

2.1. Salomon erregea

- **Hizlaria(k):** Hiribarren, Janeta
- **Elkarrizketatzailea(k):** Trebitsch, Rudolf
- **Erref:** SAR-007/001
- **Iraupena:** 0:04:07. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:04:07
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak,
mitoak eta istorioak
- **Laburpena:** Salomon erregeari buruzko usadiozko narrazio erlijiosoa.

Transkripzioa

Ona... Errege, errege Salamon, istoria.

Bazituen hiru alaba. Denbora hartan usaia zen erresuma batetik bertzera bisitaz guaitia. Salamon guan zen eta egotu zen denbora piska bat. Galdetu zioten zer familia zuen. Desohore baizitzaion hiru alaba erra-erraitia, erraten diote hiru seme zituela eta berehala hango erregek galdetzen dio hiru hilabeteren buruan seme bat egortzeaz. Hura ere gan beharra zela, harrek erreplazatuko zuela. Errege Salamon partitzen da etxerat arras triste. Gezurra errana ezagutzen dute alabek. Erraiten diote: zer duzu horren triste? Aitak: Zer probetxua izanen dinat zueri erran eta? Nork daki? Hola-hola guan ziren zonbait egun, gero eta gehiago triste. Alaba zaharrenak...

Atakatzen du: Zer duzu, aita? Orduan erraiten dio: eztun probotxurik: gezurra erran zioinat erregeri hiru seme zaiztuztedala eta ezin erremedia. "Ni guanen naiz, aita". Hi ba! "Ni". Beztitzen da soldado arropan. Aitak [emaiten dio] zaldia, behar duen dirua. Aitak zer egiten du ikusteko ian kuraia izanen zuen: bide bazterretz ateratzen zaio biderat. Erraiten dio: "bizia ala moltsa?" Itzultzen da iziturik etxerat. Aita lehenago etxerat arribatua portaletan. "Izitu naiz aita, ohoin bat ateratu zait." Erraiten dio bigarrenak: "Berehala ni guanen naiz." Aitak: "Hik ere horrek bezala eginen dun." "Gan behar dut." Partitzen da. Aita badoha bertzeari bezala, erraiten dio: "Bizia ala moltsa." Itzultzen da [berehala etxerat. Ordukotz aita portaletan: "Hor aiz, hi ere." "Ba aita, ohoin bat ateratu zait." Hirugarrenak erraiten dio: "Ni guanen naiz, aita." "Hik ere horrek bezala eginen dun."]

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Gurasoen lanbidea eta berea (SAR-009/002)

"Kanpañan" ari ziren gurasoak (laborariak ziren). "Kanpañan" eta kontrabandoan ibiltzen ziren hauek ere gaztetatik. Gauez bakan ziren etxean.

2. Kontrabandoaren inguruko kontuak (SAR-009/003)

Kontrabandoaren inguruko kontuak. Alkohola bereziki. Tiro hots artean eskapatuak ere bai. Hainbat pasarte.

3. Ehiza kontuak (SAR-009/005)

Ihizi (ehiza) pasarteak. Erbia bereziki. Udazkenean usoa. Pekada (oilagorra) eta zakurrari alabantza. Basurdea. Sarako lehen basurdea berak hil zuen.

4. Ehiza: basurdeak, basahuntzak, azeriak (SAR-009/007)

Basurde eta basahuntz ehizaz pasarteak. Azeria ere bai.

5. Harrobian lanean (SAR-009/009)

Anaia etxean eta bera harrobian hasi zen lanean. Durruty enpresan buru zen, "xefa" zen.

6. Nola ezagutu zuen emaztea eta noiz ezkondu ziren (SAR-009/011)

Emazteak eta biek non ezagutu zuten elkar, bizilekuen kokapena eta elkartzen zireneko pasarteak.

7. Harrobiko bidea eta etxeak egin zirenekoa (SAR-009/013)

Harrobiko bidean brea bota zutenekoa ("budronatu"). Nola hasi ziren auzoko etxeak eraikitzen. Lehena berak egin zuen.

8. Igandero mezetara (SAR-009/014)

Igandero mezetara. Mezen berri: noiz eta zenbat.

9. Festen berri (SAR-009/015)

Auzoka egiten zituzten bestak. Akordeoi joleak animaturik. Dantzan, fandangotan aritzea gustuko zuen.

10. Bizikleta, motoa eta autoa noiz izan zituen (SAR-009/016)

Bizikletan ibiltzen zirela aipatzen du; ondoren motoa izan zuen eta "otoa" (autoa) berandu.

11. Harrobian lanean bizi guztian (SAR-009/017)

Harrobiko buru ("xefa") izan zen. Ondo ezagutzen zuen berak harrobia.

12. Euskara eta eskola kontuak (SAR-009/019)

Euskara eta eskola kontuak. Eskolan gutxi ibili zela kontatzen du umorez, "ikasi baikenuen goizik".

13. Toka eta noka noiz eta norekin (SAR-009/020)

Gurasoekin, lagunekin, seme-alabekin toka-nokaren eta euskararen erabilpenaren ingurukoak.

14. Bertsotarako ohitura (SAR-009/022)

Bertsotan eta kantuan aritzen zirenekoa. Meza ondoren, Herriko etxetik, "Meria"tik, ostatura joateko ohiturari buruzkoa.

15. II. Mundu gerra su-ezkilez iragarria izan zen (SAR-009/023)

II. Mundu gerrako kontuak. Noiz deklaratu zen su-ezkilen bidez jakin zuten. Non zuten basea (“depota”).

16. II. Mundu gerrako kontuak: alemanen pasarteak (SAR-009/024)

II. Mundu gerra nola bizi izan zuten. Alemanen pasarteak: etxeetako hangarretatik ateratzen zituzten behiak, haien behorrak sartzeko.

17. II. Mundu gerrako kontuak: haur garaiko oroitzapenak (SAR-009/025)

Haurrak zirelarik, alemanek kantari desfilatzen zuten eta hauek haien gibeletik joateko ohitura zuten. Batek emandako ostikoa gogoan du.

18. Baratzeko lanak (SAR-009/027)

Urteko patata. “Azkanarroak” (azkonarrak) artoak mozten zizkionekoa.

19. Etxeko animaliak; zerri hiltzeaz (SAR-009/028)

Etxeko bihiaz bazkatzen zituen zerria, oiloak, lapinak (untxiak), ahateak. Zerriarekin egiten zituztenak: andoilak hagetan zintzilik, odolkiak, pateak, lukainak... Bi zerri hiltzen zituzten urtean: ez zerri txikiak, “ehun puten zerriak” eginak.

20. Etxeko sagarno eta arno egiteaz (SAR-009/030)

Etxe askotan zen sagarnoa eta arnoa egiteko ohitura. Etxeko sagar eta mahatsarekin. Dolare asko ziren.

21. Herriz herri ibiltzen zen trenaz (SAR-009/032)

Trena "tranwaya" zen lehen. Sarako portutik Santnaxiora. Geltokiak, "alta"k baziren. Merkatura joateko erabiltzen zuten.

22. Bizikletaz merkatura (SAR-009/033)

Merkatura Donibane Lohizunera bizikletaz nola joaten ziren kontatzen du.

23. Bizikletaz, bestea bizkarrean hartuta, anaiaren bila (SAR-009/034)

Anaia soldadu zelarik, Saratik Donibaneraino anaiaren bila joaten zeneko pasarteak, bera bizikletan beste bizikleta anaiarentzat bizkarrean zeramala.

24. Saratik Zugarramurdi artean aise (SAR-009/036)

Saratik Zugarramurdi artean egunez eta gauez muga gainetik "gauazko lana".

25. Onddo biltzeaz; aita ere biltzailea (SAR-009/038)

Onddo biltzen "onddoketan" ibiltzen zenekoa. "Onddoketaria nintzen ikaragarria". "Gordezka ere ahal bada". Zein oihanetan. Aita ere biltzailea zuen.

26. Onddo lekuak ixilean gorde (SAR-009/039)

Besteei onddo tokiak ez erakustea hobe. “Ixilko eta gordezka ere ahal bada”.

27. Onddo lekuak aldatu dira (SAR-009/040)

Orain ez da joaten onddoak biltzera. Biltzaile handia zen: “onddoketaria nintzen ikaragarri”. Orain oihanak “xengatu” (aldatu) dira, ez da ateratzen.

28. Biziaren aldaketa (SAR-009/042)

Bizia anitz “xengatu” (aldatu) da. Bere iritziz txarragoa ez da eta hobe ere ez.

29. Argindarra Sarako auzoetan jarri zutenekoa (SAR-009/043)

Argindarra Sarako auzo ezberdinetan eman zutenekoa. Zutoinak “potoak” haiek emanak. Haien auzoan hauteskunde aurretik justu, auzapezak “merak” esana ere kontatzen du.

30. Urik ez etxeetan eta nola garbitzen ziren (SAR-009/044)

Urik ez zen etxeetan, inguruan bi iturri (“surtsa”);). Sukalde atzealdean (“suilarda”) garbitzen ziren. Errekan dutxak hartzen zituzten.

31. Soldadu garaiko pasarteak (SAR-009/046)

Soldadugoa suhiltzaileetan (“ponpieretan”). Ongi zen hoteletan janez hartuz.

32. Frantsesez justu-justu ikasi (SAR-009/047)

Frantsesez nola ikasi zuen galdetuta, “ez dakit ba ikasi dudan behar den bezala”, dio irriz.

33. Soldadu garaiko pasarteak (SAR-009/049)

Soldadu egon zen garaian, Frantzian kantonamendu guztietan ibili ziren. Ostatueta jaten zuteneko oroimen onak eta pasarteak.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-24

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com